

...eta

Kitto!

926 zkio.
2015-IV-17



NAGUSIAK ERE Primeran!



Recalde

Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

Miopia, katarata eta prezbiziaren kirurgia
Begi lehorraren tratamntua.





LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA

ETENGABEKO ORDUTEGIA



Doctor **Antonio Murillo**

Hezur Birsorkuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Lleidako Unibertsitatea eta Madril.**

Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfontso X.a Unibertsitatea. Madril.**

Implantologia Masterreko Irakaslea. **Lleidako Unibertsitatea.**

Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamancako Unibertsitatea.**

Unibertsitate Instituzioetako Irakasle gonbidatua.

Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.

Doctora **Ainhoa Zulueta**

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea. Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. Leongo Unibertsitatea.**

Diplomatua Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.**

Hortz-Estetikan Diplomatua.

Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.

Hortz-Estetikan Diplomatua.

Autran Institutoa, Bartzelona.

Etengabeko Formakuntza.

New York-eko Unibertsitatea.

Oklusioan Graduondoa.

Anibal Alonso Doktorea.



Astelehenetik ostiralera:

8:00etatik 22:00etara

Zapatuetan:

10:00etatik 14:00 etara

Eibarko Dendarien Elkarte
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ
Galdetuiguazu!



MUTUAK ETA ASEGUURAK

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGON/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...

Galdetuiguazu!



IRAZABAL

clínica dental

FINANTZIAZIO BEREZIA

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

ASTEAN ESANAK

"Uste dut herriari eman genizkion etxaldeak handiegiak zirela. Ezin dituzte-eta ongi kudeatu. Lur-jabe zuriei joan den hamarkadan egindako lur konfiskatzeek ez dute nahi genuen moduan funtzionatu"

(ROBERT MUGABE,
ZIMBABWEKO PRESIDENTEA)

"Austinen korritu zen maratoian Hyvon Ngetichen helmugaratzearen irudiak ikusi ondoren oso triste gelditu nintzen. Benetan txunditu nindutenak ondorengo komentarioak izan ziren. Hau al da nahi dugun kirola? Noraino iritsi behar du espektakuluak? Atleta berak, helmugara iritsi eta denbora luze baten ondoren, adierazi zuen azken bi kilometroez ez zela ezertaz gogoratzen. Horixe bera da kezkatzen nauena: hori gertatu bazitzaion esan nahi du bere burmuinak denbora batean beharrezkoa zuen oxigeno baino gutxiago izan zuela, eta horrek zuzenean lesio zerebralak eragin diezazkikeen, edo oraindik okerrago, heriotza. Ez ahaztu maratoiarri izena ematen dion istorioak diola iristerakoan pertsona hil egin zela. Horrelako probetan antolakuntzak zerbitzu medikoetan diru asko gastatzen duela, eta gertatu denarekin, zein lekutan gelditzen dira zerbitzu horiek? Are gehiago emakume hori heroi izendatzen denean. Non geldituko lirateke sorospen zerbitzuak bere betebeharrak bete bazuten, hau da, jaso eta lagundu? Hori egin eta atleta deskalifikatu izan bazuten? Eta ezbeharren bat gertatu izan baliitz?"

(IÑAKI ARRATIBEL,
KIROLAREN MEDIKUNTZAN ESPEZIALIZATUA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

KLINK EGIN.- Trago bat edan. "Basotxoren bat gehixago klink eginda".

KLO-KLOKI / KLOKADA.- Oilalokaren hotsa. Isurkin batek botillatik irtetean ataratzen duen hotsa ere bada. "Plaentxiar bat tabernan, botillatik basora klo, klo, klok, bota ahala ziharduala, egitten detsa botilliari: -Klo, klok!, egitten dok, klo, klok! Neuk kendukostat hiri klokadok".

eskutitzak

GFA-K EUSKERA LEHENESTEN DU ESPERIENTZIA ETA EZAGUTZAREN AURREAN

Langile-kolektibo bat gara, eta gutako batzuk 10 urte dihardugu gure zerbitzuak eskaintzen. GFA-ko bitarteko funtzionario gisa egin dugu lan, zainzaile moduan, Eibarko Ego Gain egoitzan. Zerbitzuaren zati bat langile propioekin eskaintzen da eta beste zati bat enpresa pribatu bateko langileekin.

Langileok, 2006ko Lan-eskaintza Publikoko azterketa guztiak gainditu arren, ez genuen plazarik atera, baina bitarteko funtzionario gisa egin izan dugu lan, zainzaile-ordezkapenak eginez, postu perfilatuetan zein perfilatu gabean; baina 2014ko maiatzean GFA-k lan-poltsa atera zuen interinoren kopurua handitzeko, eta hortik aurrera 2HE ezinbesteko betekizun bihurtzen da.

Poltsa hori martxan jarri eta aurreko Lan-eskaintza Publikoa kadukatu gabe, eta beste berri bat

deitu gabe, Lan-eskaintza publikotik gentozen langileoi deitzeari utzi ziguten. 2HE duen inor ez dutenean egingo dugu lan soilik. Egia da 2HE ez dugula, baina denbora daramagu euskaltegian prestatzen, eta gehiengook 50 urtetik gorakoak gara; ahalegina egiten dihardugu eta arazorik ez dugu egoitzako erabiltzaileekin euskeraz berba egiteko. Diputazioak berak eskaintako prestakuntzan eskarmentua dugu, baina hori ez dute ez baloratzen ez puntuatzen. Ez dugu GFA-ren jarrera ulertzen, langileon ordezkariek ahaleginu dira negoziatzen baina ez digu profila ateratzeko denborarik eman nahi; beste postu batzuetako langileentzako, aldiz, onartu dute eskakizun hori.

Politika egitea ala hizkuntza-diskriminazioa al da hau?

EGOGAIN GERONTOLOGIKOKO ZAINZAILE INTERINOAK



Euskara Elkarteak

ARGITARATZAILERA: ...eta kito! Euskara Elkarteak. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar

TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.

Astekariaren E-MAILak: erredakzioa@etakitto.eus / komunikabideak@etakitto.eus / publizitatea@etakitto.eus

E-MAILak: elkarteak@etakitto.eus / normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Ana Aizpurua, Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez eta Sheila Lopez. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.050 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kito! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679

("...eta kito!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Bigarren Errepublikia goguan

Eibarren Bigarren Errepublikia beste ifun baiño lehen aldarrikatu zala 84 urte bete ziran martitzenian, apirilaren 14an eta, urtero lez, urteurrenaren harira hainbat taldek ekitaldi berezixak egin zittuen, gure herrixaren historixan horren berezixa izan zan eguna gogora ekartzeko. Domekan Gazte Komunistak Ermutik Eibarrera bittarteko martxia egin eben eta, Untzagara aillegatzian, ekitaldi politikua hasi zan. Errepublikaren banderia, barriz, Marcelo Usabiagak igo eban. Astelehenian, barriz, Ezkerra-Berdeak taldiak Pepe Mujikari buruzko dokumentalaren emanaldixarekin gogoratu eban Errepublika eta, hurrengo egunian, urteroko martxan, Eibar-

ko Sozialistak goizetik ekin zetsen ospakizunari: Errepublika aldarrikatu ebenian umia zan Juan de los Toysesek Untzagako Casa del Pueblo-n banderia igo eban eta jarraixan, eguadiako 12.00xetan Txaltxa Zelaixan txapli-guak bota zittuen. Horrekin batera, CCOO-k alkarretartzia egin eban Untzagan. Eta arratsaldian, EH Bilduk antolatuta Sabino Cuadra diputatuak euskal errepublikaren gafiñian egin eban berba Arrate Kultur Elkartearen eta, hitzaldixa amaittuta, Ahaztuak 1936-1977 alkartiak Untzagan egindako ekitaldixarekin bat egin eben.



Sozialistak Txaltxa Zelaixan txapli-guak botatzen. SILBIA HERNANDEZ



Goixan, Gazte Komunistak domekan egin zeban ekitaldixa. Behian, Ahaztuak 1936-1977 alkartiak Untzagan egindakua.



CCOO-k alkarretartzia egin eban Untzagan. SILBIA HERNANDEZ

Domekan Intxortako erresistentien eguna

Intxorta 1937 Kultur Elkarteak antolatuta, Gerra Zibillian, 1936ko urrixaren 4an eta

1937ko apirilaren 20tik 24ra bittartian faxisten kontra borrokatu ebenak gogoratzeko

ekitaldixak egingo dira Elgetan asteburuan. Zapatuko egitaraua arratsaldetik hasiko da, 18.00etako "Elgetako kaleak gerra sasoiaren" bisita gidatuekin. 19.00etan kalejira egingo dabe eta 20.00etan, bariz, Sare Antifaxistak antolatuta "Memoriaren gaua" izenburuko kontzertua hartuko dau Espaloia kafe antzokixak. Eta domekan omenaldixa egingo detse bizi diran gudari, miliziano eta errepresaliatuari: 10.30xetan ekitaldira juandakueri harrieria egin eta jarraixan, 11.00etan gudarien igoeria



egin-go dabe, trintxeretara; 11.30xetan Intxortako herri-errekreaziñua egingo dabe eta handik ordubetera, 12.30xetan Elgetara martxia hasiko da. Bizi diran gudari eta milizianu-eri plazan egingo jakuen omenaldixa ordubatian hasiko da eta, amaitzeko, 15.00etan bazkarixa egingo dabe.



“Euskara, ospela eta egutera” dokumentala

Euskaldunon hizkuntzaren oroimen historikua berreskuratzeko, 'Euskara, ospeletik egutera' izenburuko programia antolatu dau Gipuzkoako Foru Aldundiak, Euskal Memoria Fundazioaren laguntasunarekin. Helburua euskeriaren eta euskal hiztunen aurkako bazterkerixaren gakoak eta testuingurua ezagutaraztia da eta, horrekin batera, euskeraz bizitzeko herritarrek egindako ahalegiñen barri emon nahi dabe. "Euskara, ospela eta egutera" dokumentalaren emanaldixa eta Dabid Anaut "Euskararen kate hautsiak" liburuaren egilliaren mintzaldixak osatuko dabe Eibarren euskeriaren kontrako errepresiñuaren oroimena berreskuratu nahi daben presentaziñua. Hitzordua ...eta kitto!-n (Urkizu, 11 solairuartian) izango da, datorren apirillaren 30ian (egueñian), arratsaldeko 19.00etan.



Armerixako Ikasle Ohien batzarra

Armerixa Eskolako Ikasle Ohiak urteroko batzarra egin eban Aste Santua baiño lehen, bestiak beste Mikel Entrena presidentiaren, Jose Luis Novoa eskolako zuzendarixaren, Miguel de los Toyos alkatiaren, Cristina Uriarte Hezkuntza sailburuaren eta Ramon Martinez de Murgia formakuntza eta ikaske-

ta zuzendarixaren parte-hartziarekin. Ekitaldixan Urrezko Insignia bana emon zetsen Javier Alzaga Casado eta Ricardo Etxepare Zugastiri. Eskolako ekitaldixa amaitzian, Unzaga hotelian bazkarixa euki eben eta 1965ko eta 1990ko promozioñokueri diplomak eta oroigarrixak banatu zetsazen.

autuan

UMIENDAKO INGELESA

El Corte Inglesak hainbat jarduera antolatu ditte, umiak ingelesa praktikatzeko aukeria euki deixen: bixar 18.00etan dendako erakusketa aretuan egingo dittue jarduerak; maiatzaren 9xan "Little Chef" sukaldaritza taillarra eskinduko dabe eta maiatzaren 23an, barriz, eskulanak egitteko aukeria eukiko dabe umiak. Kids&Us-ek emongo dittuan jarduerak 2-8 urte bittarteko umiendako preparau dittue, duan dira eta ingeles hutsian garatuko dittue. Juan nahi dabenak eibar@kid sandus.es helbidera idatzi leike. Informaziño gehixagorako 688607638 telefonora deittu.



SANTA KURUTZEKO JAIKAK

Apirillaren 25ian (zapatuan) hasiko dira Santa Kurutzeko jaixak, Ixua jatetxian egingo dan bertso afarixakin: 21.00xetan hasiko dan afarixan Julio Soto eta Iker Zubeldia bertsojarixak jardungo dabe eta txartelak Ixua jatetxian erosi leikez, 28 eurotan.

M^a JOSE RUIZ DE PORRES Doktorea
GINEKOLOGOA

T. Etxebarria, 4 - 1. ezk.

LEKUALDAKETA
Orain
MADINA
ERRADIOLOGIAN



Tel. 943-202857

ZU ZAINTEKO ZERBITZU ONENA eskaintzeaz gain, profesionaltasunari eta pazientearekiko tratu atseginari eusten jarraituko diogu.



Funeraria·Ehortzetxe

Mugica

EIBAR



Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

ELGOIBAR



Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko
erdialdean



24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 20 19 51

www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze
Taldea

GRUPO
Funeuskadi



Urkiuzko itturriko ura

Badira egun batzuk Urkiuzko itturrixan udalak ura edateko ona ez dala diñuan kartela ipiñi dabela. Aurretik ura tratatu barikua zala ziñuan kartela eguan eta berez urak ez dau kanbixorik euki, baiña Osasun saillak aldioro egitten dittuan ohiko analisixetan topau dittuen porzentajiak ikusitta, udalari bigarren kartel hori ipintzeko esan detse. Beraz, itturrixak betiko ura emoten segitzen dau eta bakotxak ikusi biharko dau edaten segidu nahi daben ala ez.

Parkiak eta asfaltuak konpontzen

Aste honetako eguaztenian hasi zittuen Txomoko parkia konpontzeko biharrak: parkia atzera be urbanizatzeke, pabesa aldatzeko eta impermeabilizatzeke biharrak Obegisa enpresiak egingo dittu, 18 asteko epian eta biharren aurrekontua 711.210 eurokoa da. Horrekin batera, herriko hainbat kaletan asfaltatze-lanak hasi dittue: Sansaburun, Arragueta-zeharran, Bidebarrietako ostan (37tik 39ra bittartian) eta Arkitzaneke zubixan ekin detse biharri aste honetan bertan eta datozen astiotan Romualdo Galdos kalia, Ipuruako parkiña eta Ego Gain eta Untzaga kalia asfaltatzeke asmua dakela emon dabe aditzera udaleke obra saillekuak. Biharro Excavaciones y Transportes Orsa enpresiak



Txomoko biharrak 4-5 hillebete iraungo dabe. SILBIA HERNANDEZ

egingo dittu eta totalian asfaltauko dittuen 4.030 metro karratuengaittik 95.000 euro pagauko detsez.

Gure Esku Dago-ren zozketia



Gure Esku Dagoek saldutako errifen aurreke zozketan, sarixa Eibarrera etorri zan: erretratuan premixua jasotzen ikusten dozuen Iñaki Alberdi izan zan sariduna, zorionak! Bestalde, azken zozketako zenbaki irabazliak hónetxek izan dira: 2216 (Eskoziara bidaia), 10724 (Kataluniara bidaia) eta 16685 (Goierriko landetxe batin egonaldixa). Sarixa eskatzeko azken eguna apirillaren 30a izango da, beraz, zenbakixetako bat eukiz gero, Eibarko Gure Esku Dago taldekeuekin kontaktuan ipintzia eskatu dabe.

Dispersiñuaren Kontrako Eguna

Eibarko Sarek Dispersiñuaren Kontrako Eguna antolatu dau bixarko. Horren harira antolatu dittuen ekitaldixak goizeke 11.30xetan hasike dira, Untzagan: bestiak beste, dispersiñuaren liburuxkaren irakorketa publikua, abeslarixak, bertsolarixak, trikitalarixak, ipuin-kontalarixak, umiendako jolas eta taillarrak (margo, talla eta txalaparta taillarrak), liburu banaketia, kamiseta eta bestelakuen salmenta, pintxopotia eta beste asko egingo dittue egunian zihar.

Pintxo-pote solidarixua

Aurreke zapatua Parkinson gaitzaren kontrako eguna gogoratu zan mundu maillan eta, horren aitzakixarekin, Deparkel alkartekuak pintxo-pote solidarixua antolatu eben. Egun osuan Untzagan egon ziran edarixak saltzen eta pintxo ezberdiñak musutruk emoten eta, eguraldixa lagun, jende morduak aprobetxau eban mokadutxo goxua hartu eta, bide batez, alkartari laguntzeko.



Parkinson gaitzaren kontrako eguna aprobetxau eben. LEIRE ITURBE



Ospa Hamendik eguna

Aurreke zapatuan Ospa Hamendik eguna ospatu eben gurian: goizian Arrate Kultur Elkartean mahai-ingurua egin zan eta, arratsaldian, barriz, gaztiak trikipoteuan Untzagatik gaztetxeraino abiatu ziran, han egin ziran kontzertuekin eguna agurtzeko.



Apirilaren 13an hasi zen nagusien hamabostaldia Imanol Elorza margolariaren pintura-erakusketarekin. Erakusketa datorren apirilaren 24ra arte egongo da zabalik Untzagako Jubilatutxean. “Egun horretan amaiera emango diogu hamabostaldiari eta Elorza artistak kuadro bana oparituko die Udaleko eta Eibar Kirol Elkarteko ordezkariari”, azaldu digu Joserra Gomezek.

Aurreko egunetan beste hainbat ekitaldi izan dituzte: mahai-jokoaren txapelketa; toka, petanka eta igeltoka txapelketa; umorezko solasaldia; txokolate-jana; Kaleetan Kantuz kalejira eta Arrateko Gerra Zibilaren Interpretazio Zentrura bisita.

Datorren asterako gauza gehiago dago presatuta. Azkenaldian Eibar Futbol Taldeak gure herrian sortu duen ilusioarekin bat egin dute nagusiek, eta, honen harira, *Eibar Primeran* gaiari buruzko bi hitzaldi izango ditugu. Apirilaren 20an, astelehena, Fran Garagarza Eibar

Guztira, 3.000 bazkide daude Eibarren ditugun 4 jubilatutxetean: 1.400 kide Untzagako jubilatutxean, 600 Ipuruakoan, 400 Urkikoan eta 600 Urkizuko Beheko-Tokian. Egun hauetan pertsona nagusien XXII. hamabostaldian burubelarri murgilduta gaude eta, urtero lez, egitarau zabala antolatu du Biztu Jubilatutxetxeko eta Pentsionisten Koordinakundeak, herriko Jubilatutxetxekin batera. Honen berri izateko Joxerra Gomez Biztu-ko presidentearekin elkartu gara.

JOXERRA GOMEZ, Biztuko presidentea:

“Informatikak eta txangoek arrakasta handia izaten dute nagusien artean”

KE-ko teknikaria izango da Beheko Tokian (Urkizu), eta apirilaren 22an, eguaztenean, Lluís Codina harrobiko arduraduna Untzagako jubilatutxean.

Eibartik kanpora egiten diren irteerek arrakasta handia izaten dutela azaldu digu Joserra Gomezek: “datorren astartean Gasteizera joango gara katedrala ikustera. 100 lagun baino gehiagok eman dute izena. Iaz Hondarribin egon ginen eta hiru autobus bete-tzea lortu genuen; 150 lagun joan ginen”.

Hamabostaldiari amaiera emateko herri bazkaria eta dantzaldia izango dira apirilaren 24an, barixakuan, Legarreko Frontoian. Euskeran nagusien artean bultzatzeko asmoarekin, aurtengo euskarazko monologua eskaini du Beheko Tokian Juan M^o Narbaizak Rafael Zubizarretaren laguntzarekin. Horretaz gain, Eibarko euskerari buruzko ikastaro bat daukate martxan.

Amañan bosgarren zentrua

Eibarren 4 jubilatutxetxeko daude gaur egun, auzuetan banatuta: Ipuru, Urki, Untzaga eta Urkizu. Hala ere, Gomezek esandakoaren arabera, etorkizunean bosgarren jubilatutxetxeko izango dugu Amaña inguruan: “Torrekuako Anbulategiko osasun-zerbitzuak Otolan eraikitzen ari diren ospital berrira pasatuko dira eta, alkateak esan digunez, Torrekuako eraikinean nagusiendako lekua egongo da”.

Bazkide kopuruei dagokienez, Untzagakoan 1.400 bazkide daude, 600 Ipuruan eta Urkizun, eta 400 Urkin; guztira 3.000 bazkide. Jubilatutxetxeko bakoitzak funtzionamendu propioa du eta Biztuko arduradunak hilero elkartzeko dira

Kina jokua, informatika, literatura, musika...

Kina jokua kriston arrakasta izaten du zentru guztietan; jendetza izugarria elkartzen da kina jokua dagoen egunetan. Kartetan eta dantza ikastaroetan ere primeran pasatzen dute nagusiek. Bestalde, Biztu-k antolatzen dituen informatika ikastaroek ere arrakasta handia izaten dute: “Untzagako zentroan 13 ordenagailu dituen gela daukagu. 4 ikastaro ditugu martxan eta bakoitzean 16-20 lagun inguru daude. Batzuk arratoia mugitzen ere ez dakitenez, oinarri-oinarriko ikastaroekin hasten dira eta pixkanaka maila oso ona lortzen dute. Ikastaroak goizez eskaintzen dira, eta arratsaldean informatika-gela zabalik egoten da ordenagailuetan ibili nahi dutenentzako; horretarako bolondresen laguntza izaten dute, edozein zalantza izanez gero euren gauza jo dezakete”, azaldu digu Gomez-ek.

Literatura-tertuiletan ere 22 laguneko taldea dago. Liburutegitik denek liburu bera berdina hartzen dute eta, irakurri ondoren, elkartu egiten dira liburuaren gainean aritzeko. Bestalde, burua aktibatuzko ikastaroak ere egin dituzte, jokuak eta ordenagailuak erabilita. Biztuko arduradunaren esanetan “musikak ere bere tarte dauka: gitarra ikasteko aukera egoten da Untzagan eta koru bat ere badago; bandako zuzendaria orain hasi da Untzagako korua zuzentzen”.

zentru guztietan denon arteko lana koordinatuzko. Bilera hauetan zentru bakoitzeko 2 ordezkari, Biztu Koordinakunde beste bi eta Udaleko ordezkariak parte hartzen dute.

Debabarreneko Mankomunidiak "Helburua: 60" birziklatziaren inguruko konzientziaziñua areagotzeko kanpaiña abiarazi dau oso asmo garbixarekin: 2016. urterako gaikako bilketia % 60ra ailegatzea. Horretarako, herritarrak gaixaren inguruan sensibilizatzeko programak indartzeko asmua dake. Izan be, azken urtiotan hobera egin dogu, urtetik urtera gero eta gehiago birziklatzen dogu eta, baiña halanda be jendia gehiago inplikatzia nahitaezkua da, datorren urterako sortzen ditudun hondakiñen %60 ganoraz birziklatzera ailegatzea nahi badogu behintzat.



Birziklatzen %60ra ailegatzea helburu

Azken urte bixetan gaikako birziklatziaren aldeko pauso garrantzitsuak emon ditudugu, Debabarreneko Mankomunidiak emondako datueri begiratzan hasiz gero: 2012. urtian gure mankomunidiaren birziklatzen zanaren batzabestekua % 22-kua zan eta 2014ko batzabestekua, barriz, % 35'7-raiño igotzia lortu zan. Horretan bosgarren kontenedoriak, hondakin organikak batzeko edukiontzi marroiak zeresan haundixa dakala pentsatzen dabe Mankomunidadeko arduradunak. Jose Fran Muniozguren gerentia eta Arcadio Benitez presidentiak aurreko astian emondako prentsaurrekuan azaldutakuari jarraituta, "emaitza hori nabarmen hobetu da 5. edukiontziaren ezarri daben herrixen kasuan, adibidez Eibarren: 2014. urtian birziklatze tasa %40tik gora ailegatu zan eta organikuen gaikako bilketia, barriz, hirukoiztu egin zan".

Halanda be, 2016. urtiari begira helburua beste pauso bat aurrera emotia dala diñue, "gaur egun dakagun % 40-tik %60-ra ailegatzeko, beti be bere sasoiaren Gipuzkoako Hiri Hondakiñen Kudeaketari buruzko Plan In-

tegralian finkatutako helburuetan eta Europako araudixak zihetzen dabenaren ildotik".

Beste ezer baiño lehen, gai organikak biltzeko edukiontziaren Mankomunidade osatzen daben herri guztietan ezartzea bihar da. Izan be, Deban eta Mutriku urte honetan zihar kontenedoriak ipintzen juango dira. Eta behin horrekin amaituta, hurrengo pausua herritarrak kontenedoriak modu egokixan erabiltzeko konzientziatzea funtsezko faktoria izango dala diñue, "izen-emotiarren kulturatik parte-hartziaren kulturara igartzeko". Arcadio Benitez Debabarreneko Mankomunidadeko presidentiaren berbetan, "konzientziaziñua funtsezkoa da herritarren parte-hartzia indartzeko eta gaikako bilketan helburu moduan ezarri dogun %60-ko birziklatze-tasara ailegatzeko".

Horretarako, Mankomunidiak "Helburua: 60" dibulgaziño-kanpaiña abiaraziko dau hill honetan. 19.700 euroko aurrekontua dakan kanpaiña ditudun helburu nagusixak honetxe dirala argittu dabe: "Herritarren % 60-ko helburu hori finkatzea, hondakiñak bereiztiari buruzko informaziñua hobetzea, gai organikua birziklatziaren ga-

rantziaren nabarmetzea eta, orohar, kontu honetan herritar guztien parte-hartzea eta 5. edukiontziaren erabillera hobetzea".

Organikuen garrantzia

Izan be, gai organikuen bilketan parte-hartzea oso garrantzitsua dala nabarmetzen dau Benitezek: "Gai organikak edozein etxetako zabor-poltsaren %40 baiño gehiago osatzen dau. Horregaitik, biohondakiñaren bilketan danok parte hartzen badogu, %60-ko helburua esku-eskura daukagu".

Kanpaiñaren aurkezpenian azaldu ebeenez, "herritarrak konzientziatzeko eta parte-hartzea sustatzeko hainbat ekintza aurreikusit ditudugu. Bestiak beste, 'Helburua: 60' liburuxkaren 35.000 ale etarako ditudugu argitara, Debabarreneko herrixetan etxe guztietako postontzixetan banatzeko. Argitalpen horretan hondakiñak bereizteko orduan sortzen diran zalantzarik ohikuenak oso modu bisualian argitzen ahaleginduko gara eta liburuxkaren paper ekologikuan inprimiduko ditudugu". Horrekin batera, herri maillako komunikabidietan iragarkixak jarriko ditudue.

Isasi, 31
943 207 737
Etorri!
Zure etxian
egongo zara!!
KAFETEGIA OKINDEGIA
SUTINDO

Ogi **ARTISAUA** eta
BASERRIKO ogia
Eibarko prezio
merkeenetan!!


Radio Eibar
C A D E N A
SER
104,0 FM

Izadi
LORADENDA
- Lora eta landare
natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Urtetik urtera hobetzen

Urte honen hasieran Mankomunidadadiak presentatu zittuan estatistiken arabera, 2014an Debabarrenak gaikako bilketaren %35'7-xa gainditu eban, "5. edukiontzixarekin egindako hondakin organikuaren bilketari esker. Gaikako bilketaren emaitzak nabarmen hobetu dittugu, 2013ko %26'62tik 2014ko %35'77ra pasau gara eta. Ehunekuetan izan dan sei punturen gorakada horretan gakoa 5. edukiontzixari esker organikuen bilketan izandako hazkundiarri zor jakoa, ixa bikoiztia lortu dogu eta, 1.513 tonatik 2.948 tonara igarota".

Organikuetan ez eze, gaiñerako hondakiñen bilketan be hobera egin dogu: papera 2013ko 2.268 tonatik 2014an bildutako 2.367 tonara igaro da; ontzixen bilketak %10eko hazkundia euki dau, 862 tonatik 948 tonara igarota; eta beirak, barriz, azken urtiotako datueri eutsi egitten detse, 1.963 tonatik 2.068 tonara igarota.



Bestela, ohiko bilketatik aldentzen diran bestelako materialenak (tamaiña haundi-ko hondakiñak, egurra, elektragailluak, oihalak, pilak, oli-xua...) 1.428 tonatik 1.521 tonara egin dau gora. Mankomunidadeko ordezkari-berbetan, "adierazittako hondakiñen korrante guztiak kontuan hartzen badittugu, organikua eta autokonpostajia barne, gaikako bilketia 8.035 tonatik 9.853 tonara pasau da urtebetian. Bestela esanda, 2013tik 2014ra %22tik gorako hazkundia euki dau. Eta horrekin batera, birziklagarriak ez diran eta bereizi bari-rik jasotako hondakiñen kopuruak behera egin dau: 2013an 19.093 tona izatetik 2014an 17.694 tona izatera pasau da. Murrizketia, beraz, %'3-kua izan da".

Eibar zerrendaren buruan

Udalerrixak kontuan hartuz gero, beste herrixekin alderatuta Eibarren izandako hobekuntza nabarmentzen dabe: "Eibarren 2013ko %29'84tik 2014ko %40'92ra pasatzia lortu dogu eta, datu horrekin, gure herrixa birziklatze kontuetan Mankomunidadearen buruan kokatu da, zenbakixak batezbestekua-aren gaiñetik daguala argi eta garbi erakusten dabe". Emaitza hori "organikua-ren gaikako bilketan izandako gorakadarekin eta txip per-



Arcadio Benitez Sorraluzeko alkatiarekin, han kontenedore marroiak ipiñi zittuenian.

sonalizatu bidezko 5. edukiontzixaren ezarpenarekin" zuzenian lotuta daguala pentsatzen dabe. Diñuenez, "horri esker azken urtian batutako hondakin organikuaren kopurua ia hirukoiztu egin da, 561 tonatik 1.523 tonara pasautu".

Halanda be, Eibartik kanpora be gaikako bilketi-ak hobera egin dabela azaldu dabe: Debabarrenian bigarren emaitza onena Elgoibarrek dauka, %37'36-ko birziklatze-tasarekin eta, zerrendan bata bestiare-aren atzetik Ermua (%35'67), Sorraluze (%36'31), Mutriku (%31'66), Deba (%25'08), Mendaro (%23'75) eta Mallabia (%18'10) dakaguz eta, "kasu guztietan be, hobekuntza garrantzitsuenak organikuaren gaikako bilketan izandako gorakadarekin eta Eibarren, Elgoibarren, Ermuan, Sorraluzen eta Mendaron 5. edukiontzixa hedatu izanarekin" lotuta daguazela azpimarratzen dabe.

Bidebarrieta, 5

Tel. 943 201 547

CAPI

LASER DEPILAZIOA 30€

Hanka osoak + Izterondoak 90€

Masajeak

- Osteopatia
- Teknika metamorfikoak
- Masaje terapeutikoak
- Reflexologia
- Masajeak: Thai, Kaliforniarra, Balikoa



Gorputz tratamenduak

TEKNIKAK: Kabitazioa / Radiofrequentzia / MINCEUR

Laser lipolitikoa / Presoterapia / Elektroestimulazioa


5 saioko BONOAK / Zona bat: 35 euro saioa



Aurpegi tratamenduak



**BETILE LUZAPENAK
GEL ATZAZKALAK
IA BETIRAKO
MANIKURA**



- Mikrodermoabrasioa
- Radiofrequentzia (zimurrak)
- Mantxak (BERRIA)

Berriki Leioan jokatu den "Cesar Uceda" Espainia mailako lehiaketan bonbardinoarekin hirugarren saria jaso zuen Beñat Etxabe 20 urteko zestoarrak. Ustekabe fanfarrearekin kurtso honetan bat egin duen musikariak hiru txistulari taldeekin, bi musika bandarekin, Donostiako kontserbatorioko metal taldearekin eta ska talde batekin ere jarduten du eta bonbardinoa ez ezik tronboia eta tuba ere ederto menperatzen ditu.

- Leioan aurreko hilean egin-dakoa zure lehen lehiaketa izan zen? Aurretik saririk jaso duzue?

Bakarka parte hartu dudun hirugarren lehiaketa izan zen eta bestela ere, taldeka, beste lehiaketa batzuetan parte hartu izan dut eta hainbat sari irabazi ditut. Besteak beste, orain dela urte bi Euskadiko Musikari Gazteen lehiaketan lehen saria jaso nuen. Estatu mailako horretara joateko, berriaz, 20 urtera arteko musikariren espediente akademikoari begiratzen diote eta, aukeratu zituztenetako bat izan nintzenez, horrela ailegatu nintzen lehiaketara. Ez nuen saria jasotzerik espero, nire izena entzutean sorpresa hartu nuen, baina albistea oso gustora jaso nuen.

- Bonbardinoarekin saria jaso arren, normalean tronboiarekin ibiltzen zara, ezta? Alde handia dago bien artean?

Bai, tronboiarekin Oñati eta Zestoako Bandetan jotzen dut, ska taldearekin ere, Ustekaberen... Instrumentu biak nahiko berdintsuak dira, ez dago

alde nabarmenik jotzerako orduan, noten posizioak pixka bat aldatzen dira, bestela oso antzera jotzen dira biak.

- Nola moldatzen zara txistulari, musika banda eta beste talde guztiekin batera aritzeko?

Ordutegiarekin justuan ibiltzen naiz, baina gustora ibiltzen naizenez, azkenean dena ailegatzeko denbora ateratzen dut, baina batzuetan ez dakit oso ongi nola lortzen dudan!

- Musika ikasten diharduzu, ezta?

Bai, ume gehienak moduan, musika eskolan zazpi edo zortzi urterekin hasi nintzen, gero instrumentua aukeratu nuen eta gaur egun kontserbatorioko azken urtea, seigarrena egiten nabil, ondoren musika karrerarekin hasteko asmoz.

- Eta nola ailegatu zara Ustekabera?

Xabier Oruesagasti Ustekabeko kidearen bitartez, biok elkarrekin ikasten geunden eta berak animatuta sartu nintzen fanfarrean. Oso gustora nabil, oso jende majoa da eta giro ederra daukagu.



Beñat Etxabe
(MUSIKOIA)

“Ustekaberen giro bikaina daukagu”

JONE ALZAA FERNANDEZ

3. urteurrena (2012-IV-14)



Zu jua ziñanetik gure bizimodua ez da erraza zu barik. **Ez zaitugu ahaztuko.**

Iñigo eta Jon Ander



Portugalera bidaia musikala

Pazko Asteko oporrak aprobetxatuta, argazkian ikusten dituzuen musika ikasle gazteek Portugalera bidaia musikala egin zuten apirilaren 6tik 11ra bitartean, Musika Eskolak antolatuta. Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako eta Adolfo Jainagaren eskolako ikasleek Lisboako plaza nagusia emanaldia eskaini zuten eta, horrekin batera, toki berriak ezagutzen primeran eman zituzten etxetik kanpora igarotako egunak.



Gaztelekuen topaketa arrakastatsua


Aurreko asteburuan, zapatuan Eibar eta Debako gaztelekuetako neska-mutil talde polita bildu zen kostako herrian, lehenengoz egin zen gaztelekuen arteko topaketa. Indianokua gaztelekukoek kontaktu digutenez, "ailegatu ginenean, debarrek ongi-etorria eta guzti eman ziguten tren geltokian eta jarraian, herriko plazara joan ginen, Altxorraren Bila jolasean aritzera. Bakoitzak bere burua aurkeztu eta gero, herri bietako 60 gazteak nahastu eta,

sei taldetan banatuta, herrian zehar proba ezberdinak egin genituen. Egurdia gure alde izan genuen eta herria ezagutzeko aukera polita izan zen. Alamedan bazkaldu genuen eta, gainera, denok izan genuen jokoaren sariaz, sekulako bizkotxoaz gozatzeko aukera. Eta arratsaldean euren gaztelekua erakutsi ziguten". Debako gazteak topaketa Eibarren noiz egingo den galdezka agurtu zituzten, laster bat egiteko irrikitan.

Donostiako Akuariamera txangoa


Maiatzaren 15 eta 16an Donostiako Akuariamera irteera antolatu dute Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailakoentzat. Urtero lez, plana biribila da: arratsaldean Donostiara joan, Akuariamera bisitatu ondoren, gaua bertan emango dute gazteek, arrainen artean lo egiten, Errealaren Museoa ikustera joan, Zarautzen bazkaldu... primeran pasatzeko moduko egitaraua. Joan nahi dutenek datorren astean,

apirilaren 21tik 26ra izango dute izena emateko aukera, 18.00etatik 20.00etara Indianokua gaztelekuan (Muzategi, 3) edo, bestela, interneten www.astixa.eus helbidean. Kuota 30 eurokoa da eta dauden plazak baino eskaera handiagoa egonez gero zozketa egingo dute. Irteerari buruzko bilera informatiboa, berriz, maiatzaren 7an egingo da, 17.30etan Indianokua gaztelekuan.



Victor Astigarraga Ugalde "SUMENDIXA" (2015-IV-10)

FAMILIAREN IZENEAN, ESKERRIK BEROENA gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta azken agurra ematera etorri zinetenoi.



+ OSASZUN GODA

Dentistak



Arat
Hartz-Klinika

ARRETA-ZERBITZU
INTEGRALA

Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura

Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa...

 Clinicas dentales UniverSalud

TORIBIO ETXEBARRIA, 4-1. Esk. Tel: 943 20 18 51

RPS: 53/13



bista eder
clínica dental - hartz klinika

Asko dira
gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak



20.000tik GORA PAZIENTE
ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

Bista Eder, 19 943 70 00 82



Monica Martín Fonseca
DOKTOREA

644 kolegiatu zkia.

calbetón hagin klinika

Tel. / Faxes: 943 03 33 03

Fermin Calbeton, 6 - 1. A

info@clinicacalbeton.com



Pedro Etxebarria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

EGUNERO

Calbeton 19 - 3. esk. Tfnoa: 943 20 72 17



GASTESI
Hortz-Klinika
Ane Gastesi

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Implanteak / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10-2. eskua 943 70 00 90

RPS 04/02



IRAZABAL
clínica dental

Irribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicalrazabal.com



hortz-klinika
B. IZAGIRRE
clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85



invisalign
Ikusten ez den ortodontzia

Ortodontzia ume eta helduentzat

M^a Dolores Olaizola Doktorea
RPS 195/11

EIBARKO ZENTRO MEDIKOA

Urkiizu, 13 (Orbeako Dorreak)
Telf.: 943 120 200 - 943 425 706
www.marladoloresolaizola.com

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidebarrieta, 7-1. esk. 943-702896

Errehabilitazioa

CRF AMOSTEGI
ERREHABILITAZIOA



- * Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- * Min-Uniitatea
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

Estetika klinika



abontza
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

KIRURGIA ESTETIKOA

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

**HEMEN ZURE
TOKIA izan
nahi baduzu ...
... deitu
943-206776
telefono
zenbakira**

Fisioterapia



ANE MENDIA
970 Kolegiatu zbkia.
ARRAGUETA, 20
TLF: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

FISIOTERAPIA ZENTRUA



FISIOTERAPIA
ENEKO MAILAGARAI 901 kolegiatu zbkia.
OSTEOPATIA
NEUROLOGIA
NEURO-ESTIMULAZIOA
S. Agustin, 2-4 - M lokala Tel. 622 14 58 58

Okulistikak



Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

JOSE ALBERDI
ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solairuartera
943 20 19 82



Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinikia

• **Katarata ebakuntzak**
(lente multifokalarekin)

R.P.S. 234/13

Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com



Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)



ELENA AIZPUN
PODOLOGOA
124 kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93



BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943, 799746

PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)



PODOLOGOA

Maidor Lopez Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea C
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.



PODOLOGO
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

Psikologoak



AMETS
PSIKOLOGIA KLINIKOA
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa
www.centroamets.com

Coro Ortiz de Urbina
PSIKOLOGOA (G201987 kolegiatua)

- Masterra Praktika Klinikoa
- Master P.N.L.
- Trainer

Tel. 675 70 68 07

Maialen Hernandez
PSIKOPEDAGOGOA

- Lengoia trastornoak
- Gizarteratze arazoak
- Ikasketa teknikak
- Hiperaktibitatea
- Autoestima arazoak

Tel. 605 75 75 06

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

..... (Ume eta helduendako)

Ana Artamendi

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. ezk. (EIBAR)
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

UME ETA HELDUENDAKO
PSIKOLOGIA
KABINETEA



Arrate Garitaonandia

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO
PSIKOTERAPIA

Bidebarrieta, 27-B (3. atea)
943 20 22 66

Lorena Izaguirre Garcia
PSIKOLOGOA-PSIKOTERAPEUTA

Errebal, 15 - 1. ezk.....EIBAR
Zuberoa, 4ZARAUTZ
Tel. 943 831 618

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa



Oscar Mondragon Lili
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ
Urkizu, 13 - behea
Tef. 943206823 eta 686859023

Jaime Roson eta Caja Rural nagusi Valenciaga Memorialean

Caja Ruralek ondo kudeatu zuen etaparen azken tartea eta, taldeko txirrindulari baikoitzak bere zeregina ondo beteta, kontrolpean izan zuen Valenciaga Memorialaren 44. edizioa. Horrela, Jaime Roson 23 urtetik azpikoak ipini zion gaina prestatutakoari eta, Ixuarako igoeran ihes eginda, 21 segundoko aldearekin helmugaratu zen Isasiko aldapetan, Romain Campistrous frantziarraren aurretik. Antonio Pedrero ere podiumean izan zen: azken lau edizioetan sei onenen

artean izan arren, oraindik ez du lortu proba bereganatzea. Jaime Roson rabazleak ia lau ordu (3h59'57") behar izan zituen ibilbidea osatzeko, batzbestek 39'933 kilometro eginez orduko.

105 txirrindularik amaitu zuten proba eta 70ek bertan behera laga behar izan zuten. Jonathan Lastra izan zen euskaldun onena, 5. postuan, eta Julien Izagirre Debabarrenako lehena helmugaratzen. Roson irabazleak mendia ere bereganatu zuen eta tarteko helmu-



Jaime Roson Caja Ruralek lanaz baliatu zen erraz irabazteko.

gen sailkapena Sergio Samitierrentzat izan zen, Pello Goikoetxea ermuarra deskalifikatu zutelako. Taldekakoa, bestalde, Caja Ruralek irabazi zuen, Baqué & Campos bigarrenari

minutu eta 34 segundo atarata. Valenciagaren emaitzarekin, Roson Espainiako Kopako 3. postura igo da, 312 punturekin, eta Antonio Angulo lide-rrengandik 28 puntura.

Ezustea foball-zaletuan liderra eta azkenaren arteko berdinketa

Iruki Sagardotegiak Ipur Sagardotegiaren izena hartu eta ikaragarritzko jautzia egin du jokoan, azken postuan jarraitu arren azken bi jardunaldietan goi aldean dagoen Esmorgari 4-2 irabazita eta Durango liderarrekin bana berdinduta. Horri esker ez du Durangok liga irabazi oraindik, bi jardunaldiren faltan bigarrenarekiko bost punturen alde baduen arren. Asteburu honetan Ipurrek Koskor bigarrenari egingo dio aurre, beste ezusteko bat emateko



asmoz (horrela gertatuz gero, orduan bai, Durangok liga irabaziko luke edo zer eginda ere). Durango liderrak Ez-Dok Deika izango du aurkari bihar 09.00etan, zuzenean txapela jantzi dezakeen partiduan.

Concepto Egilek San Juan hartuko du domekan



Asier Urkidi, lehen taldeko fisioterapeuta.

Areto-foballeko Debabarreneko talde nagusiak berdinketarekin konformatu behar izan zuen Segorberen kantxan eta, emaitza horrekin, bai Kopa eta baita sailkapeneko hiru lehenek ere beste bi puntu gehiagoko alde atera diote. Rafa, Asier, Trevi eta Alex sartu zituzten Eibar-Elgoibarko taldearen lau golak. Etzi Olaizaga kiroldegian izango du Concepto Egilek hurrengo erronka, 12.30etan San Juan jasota.

Urko 14 Alkideba azken txanpan igoeraren bila

Azken partiduetan azpimarratzeko bilakaera izan du Erre-gionaleko foball taldeak eta jokatzeko ari den faseko bigarren itzuliak ez du zerikusirik lehenengoarekin. Martxoan Unben Roteta liderrari 2-1 irabazi zionetik, eibartarrak buru-belarri sartu dira Preferentera igotzea ahalbidetuko liokeen borrokan. Roteta gailendu eta gero, Oiartzunen 2-3 nagusitu ziren Urko 14koak eta, jarraian, Unben 3-0 irabazi zioten Intxurreri eta 2-0 Elgoibar B-ri aurrez atzeratutako partiduetan. Azken asteburuan Billabona gaintu dute 1-0 eta orain berdinduta daude Zarautzekin 3. posturako. Bihar Unben 17.30etan jokatuko dute euren artekoa.

Eibar-Celta domekan 21.00etan



Neurketa garrantzitsua du Garitanoren taldeak etzi, azken aldira oso indartsu dabilen Celtari egin beharko diolako aurre. Partidu horretarako Boveda itzuliko da hamaikakora eta ezker albokoan Vilá eta Lilloren artean dago zalantza. Partidurako sarrerak salgai daude 50 eurotan Ipar eta Hego aldeko tribunetarako eta 30 eurotan Ekialde eta Mendebaldekoetarako. Zazpi jardunaldi falta dira liga amaitzeko eta Ipuruan beste hiru partidu jokatuko dira: Sevilla, Espanyol eta, liga agurtzeko, orduko jaitsita egon daitekeen Kordoba izango dira bisitariak.

Somos Eibar Eskubaloiak lidergoa berreskuratu du hiru jardunaldiren faltan

Trapagarani Ipuruan 27-20 irabazteaz gain, Anaitasunaren porrotak Santofñan (20-18) sailkapeneko lehen postua itzuli die Fernando Fernandezek prestatzen dituztenei. Liga amaitzeko hiru jardunaldiren faltan, talde biak igoera fasea jokatuzeko txartela ia eskuan dutela (asteburu honetan ziurtatu dezakete, hirugarrenari sei eta

bost puntu kentzen baitizkiete), Somos Eibarrek, gainera, euren esku dute liga irabaztea. Horretarako, Zumaiako Pulpori egin beharko diote bisita eta etxean lehenengo Santoña (4. sailkatua) eta gero Tolosa (3.a) hartuko dituzte. Trapagarani irabazitako partiduan, gainera, lau jokalariren baja izan zuen Fernandok eta bikain integratu zituen taldean I. urteko beste hiru jokalarik eta Azkonizaga jubenila. Neurketa goitik behera kontrolatu zuten eibartarrek, atsedenaldirako 12-8arekin aldageletara joateko.



Tekniker Eibar Eskubaloia taldea kadete mailako Euskal Ligako azpitxapeldun geratu da.

Haritzak bosgarren amaitu du liga

Eibar Eskubaloiko bigarren taldea, bestalde, azkenean ezin izan zuen igoera fase-rako sailkapena eskuratu: lau lehenek jokatuko dute fase hori eta eibartarrek bosgarren amaitu zuten. Hala ere, denboraldi bikaina egin du Haritzak, batez ere kontuan izanda lehen itzulian lesionatu asko izan zirela taldean. Horrez gain, jokalarik gazte askok tartekatuko dituzte lehen taldea eta Haritzak, jubenil maila laga eta jokatzen jarraitzeko irteera proposa eskaintzen duen sistema erabiliz.

Hiru domina ekarri zituzten Kalamuako judoek Tarnosetik



Kalamuako judoek eta prestatzaileak sariekin.

Asier Nuñezek urrezkoa lortu zuen eta Maren Martinek eta Gaizka Merinok zilarrezko bana Tamoseko Leo Lagrange kiroldegian jokatutako François Herrero judo torneoan. Frantziako 25 klubeko ordezkariak hartu zuten parte, Gasteizeko batekin eta Kalamuarekin batera, guztira benjamin eta alebin mailetako 350 neska-mutil. Kalamuak hurren-

go asteetan ere egitarau bete izango du, hainbat lehiaketetan parte hartuz: gaur kadete eta junior mailetako bederatzi ordezkari nazioarteko Andorrako torneora joango dira; bihar alebin mailako torneoan izango dira Hernanin eta ne waza modalitateko Gipuzkoako txapelaren bila klubeko beste hainbat kirolari izango dira.

Aitor Monterok denboraldia hasi du

Eibarko pilotoa zirkuitoetara bueltatu zen Albaceten, iaz Espainiako Kopa Open 600 Masterrean azpitxapeldun geratu eta gero. Aurten DosanMotor Pro Racing taldearekin fitxatu du eta bere mailako Espainiako abiadura txapelaren bila jardungo du. Albaceten jokatutako lehen proban 10. postuan amaitu zuen, Sergio David Pastranak irabazitako lasterketan. Proiektu honetan lagundu dioten BEA Transmisioak, JBA Errotuloak, Bergara Fisioterapia, Michelin eta DosanMotor babesle izango da txapelketa horretan.



motzean

HIRU-TXIRLO

Imanol Osoro (San Miguel) da Gipuzkoako Hiru Txirloko 46. txapelketako liderra, 19 txirloekin, eta bat gutxiago dituzte Asola-Berriko Ganix Rodriguezek eta Floreagako Santos Muñozek. 17ekin dago beste eibartar bat: Ibai Diez. Bihar 17.00etan jokatuko dute 4. jardunaldia, Elgetan

WATERPOLOA

Senior taldeak igoera faseko partidua jokatuko du gaur 22.00etan Orbea kiroldegian Getxoren aurka. Eibartarrek lehen bi postuen bila dihardute maila igotzeko.

PILOTA

Gaur pilota afizionatuaren jaialdia izango da Astelenan, 19.30etan hasita. Udaberriko txapelketaren barruan, Gutierrez-Albizu Deportiboko bikoteak Idiazabalgoa izango du aurkari eta, 4 eta erdian, Gaztañagak eta Narbaizak legazpiarrei egingo diete aurre.



MAITE LORENZO
(Itamna poesia tailerra):

"Poesiarekin gauza handiak esaten dira"

Datorren barixakuan, apirilaren 24an, 21.00etatik aurrera poesiari eskainitako afaria eta gau-ekitaldia hartuko ditu Kili-Kili tabernak laugarrenez. Maite Lorenzok zuzentzen duen Itamna poesia tailerrekoen poesia errezitaldiari laguntzen gainera, Nathali Chuchonek musika emanaldia eskainiko du. Joan nahi duenak zuzenean Kili-Kili tabernan edo 943202401 telefonora deituta eman dezake izena.

- Nola sortu zen datorren asteko ekitaldia egiteko ideia?

Proiektua poesia kalera ateratzeko ilusiotik jaio zen, poesia antzokietatik kanpora eskaintzeko asmotik. Facebooken bitartez Bilboko Poesia Gauak taldekoekin kontaktuan ipini nintzen eta, haien laguntzarekin, Kili-Kilin lehen saioa arrakasta handiarekin eman genuen. Horrekin animatuta beste saio batzuk eman ditugu eta jendeak oso ondo hartu du ekimena. Kili-Kilitik kanpora ere, Ibarkurutzeko iturrian eta San Agustin elizan eman ditugu errezitalak.

- Nolako izango da saioa?

Berez, afaldu eta gero hasiko da poesia emanaldia. Hamasei bat lagunek jardungo dugu eta, bakoitzak gutxienez pare bat olerki errezitatuko dugunez, hiru bat ordu erraz joango zaizkigu. Gainera, poesia tailerrean gurekin batera dagoen Nathalik oraingoan abestu egingo du eta Bilbotik ere laguntzera etorriko zaizkigu. Saioaren ardatza poesia izango da eta, errezitatuko ditugunen artean, Angela Figuera, Federico Garcia Lorca eta beste idazle ezagun batzuen olerkiekin batera gitariko batzuek idatzitako beste hainbat egongo dira, denetarik entzuteko aukera izango da.

- Itamna poesia tailerra aipatu duzu. Nolako da tailerra?

Astean behin elkartzten gara, 20.30etatik 22.30etara Bittor Sarasketako Itamna akademian. Hamar bat lagun gaude eta taldean orotariko jendea dago: batzuk poesia idazten dute, beste batzuei entzutea edo irakurtzea gustatzen zaie... edozein modutan ere, denak gara poesia zale. Klase bakoitzean pare bat olerki lantzeko denbora izaten dugu, horiei laguntzeko musika Youtuben bilatzen dugu, nik errezitatzen hasteak ematen duen bertigoari aurre egiten laguntzen diet...

- Zein toki betetzen du poesiak gaur egungo gizartean?

Nire kasuan, betidanik gustatu izan zait. Poesiarekin gauza handiak esaten dira eta, gauza benetan gogorak esanda ere, inork ez du txarrera hartzen, poesiak bere lengoia duelako. Dena errespetu klabe moduko baten barruan kokatzen da.



Josu Bergara.

Kontzertu bi Belekon

Gaur 22.30etan Josu Bergara kantautore bizkaitarrak kontzertua emango du Beleko tabernan. Nerea Alberdi biolinista eta Mikel Nuñez Lauzirika pianojolearen laguntzaz "Katuska gorriak" (Taupaka elkarte, 2012) bere azken diskoa osatzen duten abestiak aurkeztuko ditu. Eta bihar gauean, berriz, Jinko Vilovaren txanda izango da, ordu eta toki berean.



Umeen danborradako entseguak

Datorren astean, eguaztenean hasiko dira San Juan jaietan umeen danborradan parte hartu nahi dutenentzat entseguak, 19.00etan Bittor Sarasketa kaleko 7an, Beistegi eraikinean udalak duen lokalean. Hortik aurrera astero egingo dituzte entseguak, ordu eta toki berean. Helduen entseguak, berriz, maiatzaren 6an hasiko dira, umeek amaitu eta jarraian, 20.00etan. Asteroko entseguak ekainaren 17ra arte egingo direla aurreratu dute antolatzaileek.



Kantu-kalejira zapatuan

Kaleetan Kantuz abesbatzak, Musika Eskolako ikasleek lagunduta, hileroko kantu-kalejira egingo du bihar, 19.45etatik aurrera. Taldea Urkiko jubilatuen etxetik irtengo da eta handik Untzaga alderaino joango dira.

San Andres eskolako erakusketa Topalekuan hilaren 26ra arte

Gaur, 19.00etatik aurrera, San Andres ikastetxeak argazki eta bideo erakusketa zabalduko du Topalekuan. Ikastetxearen sorreraren 50. urtemugaren harira antolatutako erakusketa mendean egindako argazkiak eta bideoak ipiniko dituzte ikusgai eta hilaren 26ra arte ohiko ordutegian bisitatzeko aukera egongo da, astegunetan 19.00etatik 21.00etara eta asteburuan, berriz, 12.00etatik 14.00etara eta 19.00etatik 21.00etara. Erakusketa herritar guzientzat irekia den arren, "ikasle-ohientzat zein haien familientzat bereziki aproposa" izango dela diote antolatzailleek. Bestalde, hilaren 25ean ikasle eta irakasle ohiekin egingo den bazkarirako izena emateko azken eguna gaur dela gogoratu nahi dute (interesa duenak 25 euro sartu beharko ditu Laboral Kutxako ES 79 3035 0023 9102 31151469 kontu zenbakian).



Hi Exekutibo zuzenean

Zapatu gauean, 23.00etatik aurrera, Hi Exekutiboren zuzenekoak gozatzeko aukera izango da Ez Dok tabernan. Zumarraga-Urretxuko taldea Josu Calvo (gitarra eta ahotsak), Jon Pinillos (bajua) eta Mikel Arriaran (bateria) hirukoteak osatzen du eta biharko emanaldian "Kondria guztiak" grabatu berri duten lehen diskoa bertatik bertara aurkeztuko dute.

Seiurteren disko berria

Oholtzan dabilzanetik 20 urte betetzen direnean, Elortza anaiek (lokin -ahotsa eta gitarra-, Iñaki -gitarra- eta Ekain -bateria-), eta Julen Oarbeaskoak osatzen duten laukoteak "Ezpalak" diskoa kaleratu du, orain arteko euren estudioko seigarren lana. Zortzi abestitan kontzentratu nahi izan du Seiurte taldeak zuzenekoetan duen bizitasuna eta indarra. Maiatzean eskainiko dituzte lehenengo kontzertuak: Tolosan, Gorlizan, Gasteizen, Zestoan, Durangon eta Bilbon.



laburrak

OPERA PROIEKZIOA

Zapatuan 19.30etan "Fidelio" operaren proiektzioa eskainiko dute Coliseoan. Pierluigi Pier' Alli-ren lanaren bertsio digitala Palau de les Arts Reina Sofian grabatutakoa da, ordu bi eta 20 minutuko iraupena dauka eta sarrerak 11 euro balio du.



IKASTAROA ETA HITZALDIA

Apirilaren 25ean Yoga & Pintura ikastaroa emango dute Marta Irustak eta Maite Arriagak, 10.00etatik 14.00etara (60 euro). Eta apirilaren 30ean (egunean) 18.30etatik 20.30etara Artearen Historian aditua den Leticia Martinez idazleak hitzaldia emango du, "Creadoras del arte moderno" izenburuari jarraituta. Sarrera doan izango da, baina joan nahi duenak aurretik abisatzea eskatzen dute 622053933 telefonora deituta.



- tartak
- enkarguak
- etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73



K21

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GAS INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...

HANSGRÖHE KANILEN BANATZAILA
ZORU ERRADIATZAILA
EGUZKI-ENERGIA



Egiguretarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24



Magia-ikuskizun bikoitza

Magia-kuskizun bi hartuko ditu Coliseo antzokiak bihar. Arratsaldean, 17.00etatik aurrera, Madiberrek umeendako magia saioa eskainiko du, euskeraz. Magia, koloreak eta musika erabilia Madiberrek barreak, algarak eta zirrarak sortuko ditu txikienen artean. Ikuskizunean elementu mota ezberdin asko erabiltzen dira: "Zapiak, baritak, panpinak...

eta nekez imajina daitezkeen tresna ero baino eragoak". Eta 20.30etan, berriz, "Spectacular Magi" izeneko eskainiko du 2011n Espainiako Magia Saria eskuratu zuen Sun Magoak. Bata zein bestea ikusteko sarrerak 5 euro balio du eta zuzenean Coliseoko leihatilan edo interneten, kutxabank.es helbidean eros daiteke.



"Altxorraren uhartera" euskarazko musikala Elgetako Kafe Antzokian

Apirilaren 25ean, zapatua, Aitor Bialnek zuzentzen duen Oñatiko Ganbara Txiki abesbatzak Altxorraren Uhartea musikala eskainiko du Elgetako Espaloia Kafe Antzokian. Emanaldia, 16:30ean izango da. "Altxorraren Uhartea" izeneko musikala euskaraz lehenengo aldiz estreinatuko den Louis Stevenson nobela famatuan oinarritutako lana da. Sarrerak salgai daude Elgetako Kafe Antzokian. Erreserbarako telefonoak ondorengoak dira: 943764227 eta 943789085.



"Egungo Islak" Portalean

Gaur 19.00etan inauguratuko dute Portalean "Egungo Islak", Ignazio Zuloaga institutuko ikasleen artelanaren erakusketa. Bigarren solairuko aretoak hartuko duen erakusketan batez ere batxilergo artistikoa ikasten dutenen artelanak, orotarikoak ikusteko aukera egongo da martxan egongo den aste bietan, maiatzaren 3ra arte. Martitzenetik domekara 18.30etatik 20.30etara zabalduko dute erakusketa. Bestalde, aurreko asteaz geroztik areto berean Eibarko Artisten Elkartearen taldekako erakusketa dago ikusgai.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)
18an: 22.30
19an: 20.00
20an: 20.30

"Txarriboda"

Zuzendaria: Javier Rebollo



(2 ARETOAN)
18an: 17.00, 22.30
19an: 17.00, 20.00
20an: 20.30

"Calvary"

Zuzendaria: J.M. McDonagh



(1 ARETOAN)
18an: 19.45 19an: 17.00
(ANTZOKIAN)
18an: 22.30 20an: 20.30

"Little Galicia"

Zuzendaria: Felipe Ponte



(1 ARETOAN)
18an: 17.00
(ANTZOKIAN)
19an: 17.00

"7 Ipotxa"

Zuzendaria: Boris Aljinovic



laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, ANDONE Agote Gorostizaga, martitzenian zortzi urte egin zenduazelako. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, NAIA Mondragon Urizar, martitzenian lau urte egin zenduazzen-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, GARAZI Aizpuru Castaño. Bixar, zapatua, 13 urte!! Ondo pasa eguna famelixa eta lagunekin. Muxu haundi bat.



Zorionak, LIBE Makibar, aste honetan bi urte bete dozuz-eta. Muxu haundi bat etxekuen eta, batez be, zure neba Danelen aldetik.



Zorionak, NADIA, hillaren 10ian 7 urte bete zenduazzen-eta. Laztan haundi bat famelixaren, lagunen eta lan-en partez.



Zorionak, OIHENART, gure mutiltxuak bixar lau urte egingo dittu-eta. Muxu haundi bat aitatxo, amatxo eta Aioraren partez.



Zorionak, ANE Mendizabal Osa, zure 3. urtebetetzian. Patxo haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, MARKEL Lasuen, martitzenian hiru urte egingo dozuz-eta. Patxo potolua aitatxo eta amatxoren partez.




Zorionak, NAIA, zure hirugarren urtebetetzian. Markel zure jolas lagunaren partez.



Zorionak, EIDER, martitzenian zazpi urte bete zenduazzen-eta. Muxu haundi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, ENEKO, haraiñegun 13 urte bete zenduazzen-eta. Maite zaittugu. Etxekuen partez.



Zorionak, IRATXE, domekan urtiak betekozuz-eta. Muxu haundi bat famelixaren eta, batez be, Noah eta Marenen partez.




Zorionak, MARKEL (apirillaren 9xan zazpi urte egin zenduazzen) eta LUKEN (domekan hiru egingo dozuz). Segi oin bezain alai eta potxolo! Zorionak!!!



Zorionak, NORA (hillaren 5ian, zazpi urte) eta PAULA (21ian, sei) gure printzesak urtiak egiten dittuez-eta. Laztan haundi bat famelixa guztien partez.



Zorionak, NAHIA (hillaren 23an sei urte) eta OSKAR (20xan) urtiak betekozuz-eta. Laztan haundi bana famelixakuen eta lagunen partez.



Zorionak, MAITANE (hillaren 8xan 12 urte egin zenduazzen) eta ANDER (domekan 16 betekozuz). Muxuak etxekuen partez.



Zorionak, MARKEL Garrido, gaur 9 urte egingo dozuzelako. Ondo pasa, txapeldun, etxekuen partez.



Zorionak, LIER, domekan urtetxua egingo dozu-eta. Patxo haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, JULEN, gure txapeldunak atzo 16 urte bete zittuan-eta.



Ongi etorri, LIBE!
Eta zorionak Eiderri eta Mikeli!

jaiotakoak

- Carmen Etxaluze Vidarte. 2015-III-24.
- Maiaten Gonzalez Cristobal. 2015-IV-9.
- Libe Sologaistua Mujika. 2015-IV-10.
- Niouma Sissoko. 2015-IV-10.
- Xuban Murillo Comino. 2015-IV-10.
- Telmo Lili Rios. 2015-IV-12.

hildakoak

- Amaia Albizuri Alberdi. 89 urte. 2015-IV-4.
- M^a Carmen Franco Agirre. 73 urte. 2015-IV-7.
- Victor Astigarraga Ugalde. 96 urte. 2015-IV-10.
- Arsenio Lope Lope. 89 urte. 2015-IV-10.
- Conchita Larrinaga Lejardi. 88 urte. 2015-IV-11.
- Manuel Gutierrez Revuelta. 57 urte. 2015-IV-12.
- Facundo Calderon Oliva. 78 urte. 2015-IV-12.
- Isabel Anitua Aranzabal. 85 urte. 2015-IV-13.
- Rosalio Lejardi Zenarruzabeitia. 83 urte. 2015-IV-14.
- Pelayo Mancebo Martin. 89 urte. 2015-IV-14.
- Angela Zubiaurre Laskurain. 87 urte. 2015-IV-14.
- Angeles Aizpun Paternain. 93 urte. 2015-IV-15.

BARIXAKUA 17

GAZTELEKUA

16.30. "Zer da nomofobia?". Indianokuan.

MENDI ASTEA

18.00/21.00. "Slackline, probatu zure oreka" eta eskalada. Toribio Etxebarria kalean.

BILERA

18.30. Sanjuanak prestatzeko bilera irekia, Jaixak Herrixak Herrixandakok deituta. Txaltxa Zelaiko kioskoan.

GURE ESKU DAGO

19.00/20.00. "Erabakia ehuntzen" ekimenerako oihalak etab. saltzea. Deporren.

ANTZERKIA

20.30. "#Trending Tronching" umorezko ikuskizuna, Leo Harlem eta Sr. Corralesen eskutik. 24 euro. Coliseoan

KONTZERTUA

22.30. Josu Bergara & The Akorde Txikiak. Beleko tabernan

ZAPATUA 18

ATE IREKIAK

11.00/14.00. Gerra Zibilaren interpretazio zentrua ezagutzeko ate irekien jardunaldia. Arrateko kolonian.

DISPERTSIOAREN KONTRAKO EGUNA

11.30. Dispersioaren liburuxkaren irakurketa, abeslariak, bertsolariak, trikitilariak, ipuin kontalaria, umeendako jolas eta tailerrak, liburu banaketa, kamiseta eta abarren salmenta, pintxo-potea... Eibarko Sareren eskutik. Untzagan.

GAZTELEKUA

17.00. Play / Wii. Indianokuan.

MAGIA IKUSKIZUNA

17.00. Madiber Magoaren umeendako ikuskizuna (euskeraz). 5 €. Coliseoan.

INTXORTAKO ERRESISTENTEAK

18.00. "Elgetako kaleak gerra sasoiaren" bisita gidatua.

19.00. Kalejira.
20.00. "Memoriaren gaua" kontzertua Espaloian (Sare Antifaxistak antolatuta). Elgetan.

KALEETAN KANTUZ

19.45. Abesbatzaren eta Musika Eskolakoen kantu kalejira. Urkiko jubilatuen etxetik hasita, Untzaga alderaino.

MAGIA IKUSKIZUNA

20.30. Sun Magoaren "Spectacular Magic". 5 €. Coliseoan.

KONTZERTUA

22.30. Jinko Vilova. Beleko tabernan.

DOMEKA 19

TXISTULARIAK

11.00. Usartza Txistulari Taldearen kalejira.

INTXORTAKO ERRESISTENTEAK

10.30. Harrera.
11.00. Gudariaren igoera trintxeretara.
11.30. Errekreaio herrikoia Intxortako Atean.
12.30. Martxa Elgetara.
13.00. Bizi diren gudari eta milizianoei omenaldia plazan.
15.00. Bazkaria. Elgetan.

ASTELEHENA 20

NAGUSIEN HAMABOSTALDIA

19.00. "Eibar Primeran" hitzaldia. Beheko Tokian.

BILERA

19.00. Sanjuanetako egitaraua prestatzeko bilera irekia. Portalean (3. pisuan, B batzartokian).

MARTITZENA 21

NAGUSIEN HAMABOSTALDIA

09.30. Gasteizera joateko autobusaren irteera ordua. Ego Gaingo autobus geltokitik (09.35etan Beheko Tokian).

JOSKINTZA-PUNTO TAILERRA

17.00 eta 18.30. Portalean.

EGUAZTENA 22

LIBURU AURKEZPENEA

19.00. "Secretos del arenal" liburua, Felix G. Modroño egilearen eskutik. Portalean.

NAGUSIEN HAMABOSTALDIA

19.00. "Eibar Primeran" hitzaldia. Untzaga jubilatua etxean.

EIBARKO KANTUZALEAK

19.00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokalean.

DANBORRADA

19.00. Umeen danborradako entsegua. Beistegi eraikinean (Bittor Sarasketa kalean).

EGUENA 23

ENPLEGU-TAILERRA

10.00/12.00. "CV eta joera berriak" Portalean (ikastaro gelan).

KALERATZEAK STOP

19.00. Plataformako bilera irekia. Portalean.

KALEETAN KANTUZ

19.30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

HOROSKOPOA

ARIES

Aste Santuan jo ta su ibili zara, ez zara momentu batean ere gelditu eta zure gorputzak gehiegikeriak igartzen ditu.

TAURUS

Ez da asko behar zoriontsu izateko. Duzun guztia baloratzen ikasi beharko zenuke. Inguruokoak inbidiatan dituzu.

GEMINI

Zeharo despistatuta zabilta, gauza asko ahazten zaizkizu eta hasitakoa amaitzea asko kostatzen zaizu. Zentratu behingoz.

CANCER

Espero ez zenuen berri horrek zure planak aldatu ditu. Lasai; oraindik ere sasoi zabilta egoerari buelta emateko.

LEO

Look aldaketa behar duzu. Noiztik ilea moztu barik? Eta zamarra zahar hori? Mesedez, 2015ean gaudela... Egokitu!

VIRGO

Zelan gustatzen zaizun dotore irtetzea kalera!! Gaitik behera, pintzel baten moduan jantzen zara. Beti modan!!!

LIBRA

Esaten dutenari garrantzi handiegia ematen diozu eta, zuk nahi duzuna egin beharrean, besteek diotena egiten duzu.

SCORPIUS

Eguzkiarekin kontuz ibiltzeko esan dizute mila bider, baina ez duzu ikasten. Ez irten eguzkitako krema eman barik.

SAGITTARIUS

Pilak ondo kargatuta itzuli zara Aste Santuko oporretatik. Orain, badakizu, bidetik irten barik: lasai eta sendo ibili.

CAPRICORNIUS


Poz-pozik ibili zara Aste Santuan, ezta? Atsedean hartzea behar zenuen zure pentsamenduak txukuntzeko. Ezagun da.

AQUARIUS

Asteburuan orain arte izan ez duzun atsedena hartzeko aukera izango duzu. Aprobetxatu, egun gogorak datoz-eta.

PISCIS

Zure gelak edozer gauza ematen du. Hasi zaitetz erropak jasotzen eta logela txukuntzen. Ez zara umea... ala bai?



erakusketak

- ✓ **Apirilaren 24ra arte**
IMANOL ELORZAREN oleo-erliebeak eta **MANDIOLA LAGUNTALDEAK** bildutako argazkien erakusketa. *Untzagako Jubilatutuan Etxean.*
- ✓ **Apirilaren 30era arte**
JAVIER ALONSOREN "Bilbao B&N" argazki erakusketa. *El Ambigu-n.*
MIKEL URIONAGUENAREN "Txonta" argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*
JUAN ANTONIO PALACIOS-EN "Paisajes naturales" argazki erakusketa. *Soraluzeko erakusketa gelan.*
- ✓ **Maiatzaren 3ra arte**
EIBARKO ARTISTEN ELKARTEAREN erakusketa. *Portalean.*
"SAN ANDRES ESKOLA 1965-2015" antzinako argazkien erakusketa. *Portalean.*

farmaziak

- ✓ **barixakua 17**
 EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- ✓ **zapatua 18**
 EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- ✓ **domeka 19**
 EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- ✓ **astelehena 20**
 EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- ✓ **martitzena 21**
 EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- ✓ **eguztana 22**
 EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- ✓ **eguna 23**
 EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- ✓ **barixakua 24**
 EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

GAUEZ BETI -2015EAN-
Elorza (J. Gisasola, 18)

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea 943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak ..943 46 46 22
- Gurutze Gorria...943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen ..650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.50etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.35. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 20.30etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45.

GASTEIZ-EIBAR. Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 07.15, 08.00, 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45, 13.30 eta 14.45. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00, 17.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Lanegun eta zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatuak eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

EIBAR-LOIU. Egutegia: 05.50, 08.35, 11.35, 14.35, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egutegia: 06.45, 09.45, 12.45, 15.45, 19.15 eta 23.15.

ikastaroak

- ✓ **Argazki-tailerra: "Workshop: retoque y edición digital"**
 Ekainaren 6an. Informazioa: argazkilaritza@deporeibar.com
- ✓ **Larrain Dantza ikastaroa**
 Apirilaren 14tik aurrera. Kultur. Informazioa: 943-202299.
- ✓ **Jabetze Eskola**
 Apirila eta ekainera bitartean. Amodioa eta sexualitatea bizitzaren bigarren erdian (maiatzaren 8an); Autodefentsa Feminista II (maiatzaren 22an); eta Autodefentsa Feminista gazteentzat (maiatzaren 29an). Izen-ematea: Pegoran.

9			5			
7	3				2	
	8		7	1		9
		2			6	9
			2	9		
4	9				7	
	2	1	6			8
		5			4	6
			9			3

SUDOKUA

9	1	3	8	5	6	7	4	2
6	8	7	2	1	4	9	3	5
4	2	5	3	9	7	8	1	6
8	4	9	7	3	2	5	6	1
2	7	6	1	8	5	4	9	3
3	5	1	6	4	9	2	8	7
5	6	8	4	2	3	1	7	9
1	3	2	9	7	8	6	5	4
7	9	4	5	6	1	3	2	8

AURREKOEN EMAITZA

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egutegia: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.35 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egutegia: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egutegia: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egutegia: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

1. Etxebizitza

1.2. Errentan

- 3 logelako pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 652-532589.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. 3 logelakoa. Tel. 652-532589.
- Eibarko mutil batek pisua edo buhardila hartuko luke alokairuan (1/2 laguntzako). Tel. 665-705978.
- Pisua alokagai Jardinetak kalean, Sakunen. 2 logela. 100 m². Gasa eta behoko suarekin. Berritua. Lursail txiki batekin. Kanpora begira, bista ederrekin eta eguzkitsua. Tel. 943-254948 eta 651-678454.
- Pisua alokagai Ermua erdialdean. 2 logela, egongela, sukaldia eta komuna. Tel. 648-643715.

2. Motorra

2.1. Salgai

- Taxi-lizentzia salgai Elgoibarren. Bezeroen zerrenda eta autoarekin. Tel. 686-234718.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Garaje itxia salgai Untzaga plazan. Tel. 688-678934.
- Taberna traspasatzen da Eibar erdialdeko oinezkoendako kalean. Tel. 645-186309. Loraena.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Esperientziadun ekonomilaria eskaintzen da errenta aitopenak egiteko. Prezio onean. Tel. 688-856459.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, etxeak garbitzeko eta den-dari jarduteko. Tel. 632-426847.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxean zein ospitalean. Esperientzia. Tel. 631-506763.
- Emakumea eskaintzen da etxeko garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 680-808125.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Tel. 602-146153. Fatima.
- Gizonezkoa eskaintzen da edozein lanetarako: lorezain, artzain, zaindari, pintore, igeltsu, garbitzaile, banatzaile... Tel. 631-066712. Ahmed.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia handia. Tel. 659-330026.
- Emakume euskalduna eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 606-502567.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 646-441190.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 652-587259.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 620-258708.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 628-765929.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 672-076852.
- Emakumea eskaintzen da sodiedadeak eta bulegoak garbitzeko. Tel. 638-421827.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta ostalaritzan lan egiteko. Tel. 645-194423.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko: pisuak, soziedadeak, pegorak, tabernak... Esperientzia. Tel. 638-221948.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 638-338816.
- Emakumea eskaintzen nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 681-055905.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 628-765929.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko. Tel. 638-421827.
- Eibarko neska eskaintzen da goizez etxetan garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 616-607121.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka eta asteburuetan. Tel. 638-338816.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 698-604531.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 636-976515.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduzko zabala. Erreferentziak. Tel. 631-343232.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Neska euskalduna eskaintzen da pegorak garbitzeko. Tel. 617-571210.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 657-103380.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 680-808125.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-932184.
- Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 661-064027.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 672-867999.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko asteburuetan. Tel. 602-123667.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 639-523390.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-363056.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 642-636525.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa. Tel. 688-825514.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-392169. Blanca.
- Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 695-708379.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 623-064664.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka edo externa. Tel. 648-180233.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna eta orduka. Tel. 631-124942.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 603-740755.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 626-580592.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko, nagusiak edo umeak zaintzeko, tabernan lan egiteko... Tel. 632-204896.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko, nagusiak edo umeak zaintzeko, tabernan lan egiteko... Tel. 679-910991.

4.2. Langile bila

- Emakumea behar da interna beste emakume bat zaintzeko. Erreferentziez gainera, Alzheimerra daukaten gaixoak zaintzen esperientzia izan behar du. Tel. 639-529935.
- Sukaldean eta barran eskarmentua duen pertsona behar da Eibarko taberna batean. Tel. 650-409249. Txomin.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- Gitarra klase partikularrak ematen dira: gitarra elektrikoa, akustikoa, klasikoa eta baxua. Tel. 665-732640. Aitor.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- TVP ordenagailua salgai, diru-zorro kaxa eta inpresorarekin. Proscar programa barne. Tel. 618-272930. Asier.
- Masajerako ohatila eta infragorri lanpara salgai. Prezio onean. Tel. 670-342388.
- Ohe artikulatua salgai. Ospitalekoa bezalako. Berri-berria eta prezio onean. Tel. 657-799511.
- Urpekaritzako jantzia salgai. Sporasub chicle Yamamoto 45, 5 mm, XL taila. 90 euro osorik eta 45 prakak bakarrik. Tel. 634-822504. Aratz.
- Peltz Nomic piolet pareta salgai. Berria. 330 euro. Tel. 634-822504. Aratz.

6.2. Eman

- Paseo-aulkia behar dut umearentzat. Tel. 631-363056.

6.3. Galdu/Aurkitu

- CD batzuk aurkitu ditut B. Sarasketa kalearen hasieran, edukiontzien parean. Tel. 688-801567.
- Txupetea-eusteko zilarrezko brotxea eta txupetea aurkitu ditut J. Etxeberria kale inguruan. Jone izena dauka. Tel. 943-702547.

ATE IREKIAK

Apirilaren 22an 18:00etan

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S. COOP

Fabrikazio Mekanikoko Diseinua

Robota diseinatzen dute

Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa

Robotaren atalak eta piezak fabrikatzen dituzte

Mekatronika Industrialia

Robotaren muntaiak eta mantentzeaz arduratzen dira

Sareko Informatika Sistemen Administrazioa


Robotaren hari gabeko komunikazioaz, ordenagailu muntaiak eta sistema eragileen instalazioaz arduratzen dira

Automatizazioa eta Robotika Industrialia

Robotari autonomia ematen dioten elementuak instalatu eta programatzen dituzte

Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak

Robotaren instalazio elektriko eta elektronikoaz eta energia hornitzeaz arduratzen dira



Jakinarazi etorriko zarela! 943 71 21 91

maiatzak 25, astelehena

08:45 - 14:45

EIBAR PORTALEA

egitaraua

- "Etxeko eta kaleko hizkuntza erabileraren arteko loturak: Lasarte-Oriako ikerketa bat".
Pello Jauregi, EHUko irakaslea.
- "Familia bidezko transmisioa: guraso euskaldunen diskurtsoak".
Malores Etxeberria, Hernaniko Udaleko euskara teknikaria.
Nekane Jauregi, Gipuzkoako Foru Aldundiko euskara teknikaria.
- "Gurasoak Berbetan: guraso eta familiei zuzendutako mintzapraktika taldeak".
Maider Aranberri, ...eta kitto! Euskara Elkarteko teknikaria.
- "Igandeak jai. Familia giroan euskaraz".
Narrea Cuesta, Geu Elkartea.
- "Erreferenteen garrantzia. Prestigioaren transmisioa".
Gaizka Garitano, Eibar Kirol Elkarteko entrenatzailea.
- "Bertsolaritza eta euskararen transmisioa".
Miren Artetxe, EHU-ko irakaslea.
- "Mahaingurua". Dinamizatzailea:
Jaime Alfuna, Urtxintxa.

euskararen transmisioa mintegia



IZEN EMATEA

MAIATZAREN 4TIK 21ERA

25€ bazkariarekin
15€ bazkaririk gabe

Antolatzailea:



Euskara Elkartea

Babeslea:



Laguntzaileak:



KIDS&US, METODOLOGIA BERRITZAILEA INGELESA ADIN GOIZTIARREAN IKASTEKO



- * Kids&Us-ek hizkuntzan guztiz murgiltzea proposatzen du, haurrek oso gaztetan ikasteko duten gaitasun handia ahalik eta gehien aprobetxatzeko helburuarekin.
- * Enpresak 65.000 ikasle ditu mundu osoan zehar.

Ingelesa geure ama hizkuntza ikasten dugun modu berean ikastea. Hau da, orain dela 10 urte baino gehiago, Natalia Perarnau filologoak ingelesa ikasteko sortu zuen metodologia berritzailearen abiapuntua. Kids&Us-ekin urte batetik aurrerako haurrak bigarren edo hirugarren hizkuntza bat ikasten has daitezke, ikaskuntza sistema tradizionalaren guztiz desberdina den metodo baten bidez.

Egun, 65.000 haur baino gehiagok ikasten dute ingelesa 200 zentro baino gehiagotan Kids&Us metodoarekin. Hurrengo ikasturtean, Kids&Us-en metodologia Eibar Ego-Gain 8 helbidera iritsiko da. Zentro berriak ireki du matrikulazio aldia eta tokia erreserbatzeko aukera ematen du. Erreserba horiek ez dira irailera arte kobratuko. Ate irekien jardunaldi bat antolatuko dugu irailean, instalazioak, material pedagogikoa eta Kids&Us Eibar zentroko taldea gertutik ezagutu ahal izateko.

Gainera, apiriletik aurrera, zentroak ingelesezko jarduera ugari antolatzea aurreikusi du, guztiz doan, Eibarko El Corte Ingles-en. informazio gehiago nahi baduzu Kids&Us Eibar-ek zure eskuetara jartzen du 688 607 638 telefono zenbakia eta helbide elektronikoa bat: eibar@kidsandus.es

INGELESA URTE BATETIK AURRERA

Ama hizkuntzaren barneratze prozesua haurra hori entzuten hasten denean hasten bada, zergatik itxaron behar dugu bigarren edo hirugarren hizkuntza bat entzuten hasteko, gure helburua haurrak gaitasun on bat garatzea baldin bada? Kids&Us-ek ama hizkuntza barneratzeko prozesu naturalean oinarritutako metodologia erabiltzen du, ordena natural eta espontaneo baten ematen den prozesu hutsezina. Gure ama hizkuntza barneratzean, entzunez hasten gara, ondoren entzuten duguna ulertzen dugu, guzti hori hitzez adieraziz eta azkenik urte batzuk igarotzen direnean hizkuntza hori irakurtzeko eta idatzeko gai gara.



Kids&Us metodoarekin, urtebete betetzean hizkuntza batekin kontaktuan jartzen dira haurrak, modu globalean eta murriztapenik gabe, baina beren adinarekin bat datozen egoera eta testuinguruetan. Jokoen, ipuinen, abestien edo dantzen bidez hizkuntzan guztiz murgiltzen dira haurrak, ikasteko duten gaitasun handia ahalik eta gehien aprobetxatzeko helburuarekin.

Kids&Us-eko ikasturteen eskaintza gurasoekin joaten diren urtebeteko adina duten haurretatik hasita, 18 urterainoko nerabeetaraino luzatzen da. Zenbait kasutan C2 (Proficiency) maila lortzeko gai izango dira, Cambridge-ko Unibertsitateak aintzatesten duen maila altuena. Bartzelonako Unibertsitateak 2012. urtean egindako ikerketa batek bermatzen ditu gure ikaskuntza sistemaren onurak, metodo tradizionalarekin alderatuz. Ikerketaren arabera Kids&Us-ekin ingelesa ikasi duten haurrek hiztegi, gramatika, ahoskatze, ahozko eta idatzizko ulermen eta ahozko adierazpen hobeak dituzte.

MATERIAL DIDAKTIKO PROPIOA

Eskolak minutura planifikatuta daude eta Kids&Us-eko departamentu pedagogikoak garatutako material pedagogikoa eskusiboen laguntzarekin indartzen dira. Gainera, maila aurreratuenetan, azterketa ofizialetan agertzen diren moduko ariketak aurkituko dituzte ikasleek materialetan.

Kids&Us Miribilla
Angel Ortiz Alfau kalea
48003 Bilbo-Miribilla
T. 688 648 809

Kids&Us Zarautz
Salbide 1, C lokala
20800 Zarautz
T.638 527 949

Kids&Us Eibar
Ego-Gain kalea, 8
20600 Eibar
T. 688 607 638

Kids&Us
school of english